

ORDIZIAN MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA ZERBITZU ENPRESEN ELKARTEARI EMANDAKO DIRU-LAGUNTZA ARAUTZEN DUEN HITZARMENA

ELKARTURIK

Alde batetik, Adur Ezenarro Agirre, Ordiziako Udaleko ALKATEA, jakinarazpen helbidea Ordiziako udaletxean, hau da, Kale Nagusia 24, Ordizian, duena

Eta bestetik, Mari Jose Rosco Prado, 35777906A NAN duena, Ordizian Merkataritza, Ostalaritza eta Zerbitzu Elkartearen (Hemendik aurrera Ordizian Elkartea) ordezkaria, IFZ G20374971, jakinarazpen helbidea Ordiziako Andre Mari kalea 21, baxua, duena

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak, Ordiziako Udalaren izenean eta ordezkaritzan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.f) artikulua xedaturikoaren arabera.


Bigarrenak, Ordizian Elkartearen izenean eta ordezkaritzan, Ordizian Elkartearen lehendakari moduan.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko behar adinako gaitasun juridiko nahikoa aitortzen diote elkarri, eta dokumentu hau sinatzen dute bakoitzak bere erakundearen izenean eta, helburu horretarako,

AZALDU DUTE

I.- Ordizian Elkartea-k 2026eko urtarrilaren 27an Udal honetan aurkeztutako idatziaren bidez, dirulaguntza eskaera aurkeztu zuela, Ordiziako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrek xedatutakoarekin bat etorritik. Memoria honek 63.537,58 euroko aurrekontua du (halere, Udal Aurrekontuan 59.960 euroko dirulaguntza dago aurreikusita), dirulaguntza eskaeraren helburu diren ondorengo jarduerak gauzatu ahal izateko, eta laguntza hori hitzarmen honen bidez emango da. Jarduerak:

- Tokiko merkataritzaren dinamizaziorako lan teknikoaren pertsonaleko gastuei laguntza.



Ordiziako Udala



ORDIZIAN
ELKARTEA · ASOCIACION

2026DIZU0004

- Sentsibilizazio ekintzak gauzatzeko laguntza.
- Dinamizazio ekintzak gauzatzeko laguntza.

II.- Entitateak egunean dituela zerga-betebehar guztiak eta egunean dagoela Gizarte Segurantzarekin.

III.- Entitatea ez dagoela 38/2003 Legeak, azaroaren 7koak, Dirulaguntzei buruzkoak, bere 13. artikuluko 2. eta 3. zatietan dirulaguntzak jasotzeko adierazitako debekuausaren baten pean.

IV.- Bere estatutuekin bat etorritz, entitate eskatzailearen xedea bat datorrela hitzarmen honen bidez emango den dirulaguntzaren xede eta helbururekin.


V.- Dirulaguntza izendun hau, Ordiziako udalak 2024ko otsailaren 29an onartutako Ordiziako Udaleko Dirulaguntza Plan Estrategikoan (2024-2026) jasota dagoela, dirulaguntza izendun moduan.

VI.- Ordiziako Udalaren 2026ko udal aurrekontuan, partida agertzen dela entitate eskatzailearen dirulaguntza izendunaren kontzeptuaren pean.

VII.- 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 25. artikuluan honela dioela: *“Udalerriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera-mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake.”*.

Ordiziako Udalak helburu bezala hartzen du herriko sektore komertziala, baita hau sustatzeko baliagarria den asoziazionismoa bultzatzea. Helburu honekin Ordiziako merkataritza biziberritzeko plana landu zen eta orain gutxi Merkataritza Plan berri bat landu zen. Hauen bitartez ondorio nagusiak atera ziren, ahultasun eta mehatxuei aurre egin hala nola sendotasunak eta aukerak indartu baita aprobetxatzeko.

Ordiziako Udalak markatutako helburuen artean, MBPBan (Merkataritza Biziberritzeko Plan Berezia) eta Merkataritza Planean, aholkularitza, sektorearen profesionaltasuna, ondorengoak daude; salmenta puntuaren hobekuntza, lokal komertzial hutsen berreskuratzea, jarduera estetiko eta urbanistiko - komertzialak, erosketa esperientzia eroso eta erakargarria erraztu, bezero potentzialen fluxu handiagoa sortzeko proiektuak baita gune komertzialaren eta bere ingurunearen dinamizazioa.



Ordiziako Udala



ORDIZIAN
ELKARTEA - ASOCIACION

2026DIZU0004

Ordiziako Merkataritza Elkartea 1978. urtean sortu zen herriko merkataritza batzuen ekimen eta lanari esker, Ordiziako Merkataritza Elkartaren interes sozial eta kulturalak defendatzeko helburuarekin eta hasieratik Udalaren babesa jasotzeko nahiarekin. Ekimen berriak burutzea, sustapen eta koordinazio-lanak egitea da xedea; eta udalaren laguntzarekin, herriko hirugarren sektorea indartzea eta euren bezeroei produktu eskaintza anitza emateko helburuarekin sortu zen.

Gaur egun, Ordizian Elkartea Ordiziako udalerrian kokatuta dauden 100 dendaz osatuta dago; ehungintza, elikadura, bitxigintza, osasungintza, ostalaritza, edergintza... gisako jarduera desberdinak biltzen dituelarik.

ORDIZIAN elkartearen helburu nagusiak honako hauek dira:

- Bazkideen interes ekonomiko eta profesionalen ordezkari izatea defentsa, sustapen eta zabalpen lanak egitea.
- Gipuzkoako merkataritzaren marketing-a eta irudiarekin zer ikusia duten gai guztien garapena.
- Hirigintza komertzialari buruzko proiektuen azterketa, garapena eta exekuzio lanak.
- Hirigunetako bezeroen beharrak aztertu elkartearen bidez eta gogor lan egin beraien beharrei erantzuna emateko.
- Herritarrak jabetzea gure herrietan eta hirietan erosketak egitea duen garrantziaz eta merkataritzaren kalitatezko irudia lantzea eta transmititzea.
- Sektorearen modernizazioaren alde lan egin, gestioa errazten duten tresna egokiekin, puntakoak diren merkatariei lagunduz eta animatuz bide horretatik jarraitzeko eta gainerakoei azalduz hori dela bide egokiena gaur egun lehiakorrek izateko.

VII.- Beharrezkoa dela Ordizian Merkataritza Elkartek helburu horiekin egiten duen lanari behar bezalako aitortza egitea ez ezik, Udalaren eta Ordizian Merkataritza Elkarteen arteko lankidetzak jardunean sakontzea ere, bere jardunaren kalitatea ziurtatu eta sendotzeko. Betiere, aintzat harturik Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen bidez Udalari ematen zaizkion eskumenak eta onuradunak 2023rako aurkeztutako egitasmoa.

VIII.- Hitzarmen hau ematen dela lege-arau hauen babesean: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko lege orokorra eta 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, hura garatzen duen Erregelamendua onartzen duena; eta Ordiziako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.

2026DIZU0004

IX.- Gauzatutako 2026ko otsailaren 24eko 2026/0313 Alkate Dekretuak Elkarteak eskaturiko 59.960 euroko dirulaguntza emateko hitzarmena sinatzea erabaki zuela.

Eta ados daudenez, bi aldeek hitzarmen hau formalizatzen dute, ondoren zehazten diren klausulak ezarriz.

KLAUSULAK

Lehena.- Xedea.

Hitzarmen honen helburua da Ordiziako Udalaren eta Ordizian Merkatarikari Elkartearen arteko lankidetzarako eremu egonkor bat ezartzea, Ordizian Merkatarikari Elkarteak Ordiziako udalerrian burutzen dituen ekintzetarako Udalaren eskutik jasoko dituen dirulaguntzen araudia ezarriz.


Bigarrena.- Diruz lagundu daitezkeen jarduerak eta hartutako konpromezuak.

Hitzarmen honen eremuan honako jarduera hauek sartzen dira:

- Tokiko merkataritzaren dinamizaziorako lan teknikoaren pertsonaleko gastuei laguntza.
- Sentsibilizazio ekintzak gauzatzeko laguntza.
- Dinamizazio ekintzak gauzatzeko laguntza.

Merkataritza sektorearen bultzada eta honen ingurunearen dinamizazioa. Besteak beste, ondorengo ekintzen bidez:

- Udaberriko eta Gabonetako kanpainak.
- Stock eta Kale - Azokak.
- Erakusleiho lehiaketak.
- Ostalaritza kanpainak.
- ORDIZIAN Merkataritza Bulegoa.
- ORDIZIAN VISA Txartela fidelitate sistema.
- Sentsibilizazio kanpainak.
- Adostu beharreko bestelakoak.



Ordiziako Udala



ORDIZIAN
ELKARTEA - ASOCIACIÓN

2026DIZU0004


Ordizian Merkataritza Elkarteak ondorengo konpromenez hartzen ditu:

- Ordizian elkarteak koordinatzaile bat izango du bi aldeen artean adostutako ekintza eta proiektuen gauzatzea burutzeko baita Ordizian elkarteak egoki ikusten dituen lanetarako sektorea eta elkarte bera bultzatzeko asmoz.
- Hitzarmen hau sinatzen duten bi aldeen artean merkataritza-lokal bat alokatuko da, Ordizian elkarteak bere jarduerak gauzatu ditzan, elkarteak merkatariei, bezeroei eta herritarrei zerbitzua eman diezaien.
- Lokalaren alokairu, argindar, telefono eta internet gastuak, gasa, ur gastuak, garbiketa eta lokalari zuzenean dagozkion gastuen %50a ordainduko du Ordizian Elkarteak.
- Diru-laguntza hitzarmenean adierazitako helburu zehatzetarako erabiltzea eta araututako moduan zurtzea.
- Diruz lagundutako jarduerak finantzatzen dituzten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak eskuratu izanaren berri ematea Ordiziako Udalari. Ordiziako Udalak Ordiziako Elkarteari emandako diru-laguntza bateragarria da administrazio publikoek edo erakunde pribatuek emandako beste laguntza batzuekin.
- Ordiziako Udalaren Dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokorren 10. Artikuluan zein hitzarmen honen klausulatan ezarritako betebeharrak betetzea.

Ordiziako Udalak ondorengo konpromenez hartzen ditu:

- Hitzarmen hau sinatzen duten bi aldeen artean merkataritza-lokal bat alokatuko da, Ordizian elkarteak bere jarduerak gauzatu ditzan, elkarteak merkatariei, bezeroei eta herritarrei zerbitzua eman diezaien.
- Lokalaren alokairu, argindar, telefono eta internet gastuak, gasa, ur gastuak, garbiketa eta lokalari zuzenean dagozkion gastuen %50a ordainduko du Ordiziako Udalak.
- Elkarteak aurrez aurkeztutako eskaeren bitartez, Ordiziako Udalak herriko guneko edo instalazio desberdinak utziko dizkio Ordizian elkarteari, baita hitzarmen honetan jasotako edo adostutako diren beste dinamizazio ekintzak betetzeko beharrezkoak izan daitezkeen tresna edo elementuak ere.

Hirugarrena.- Indarraldia.



Ordiziako Udala



ORDIZIAN
ELKARTEA · ASOCIACION

2026DIZU0004

Hitzarmen hau izenpetzen den egunetik 2026eko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean, nahiz eta horrek ez duen galarazten lehenengo klausulan zehaztutako denboraldian garatutako jarduerak finantzatzea horren kargura.

Emandako dirulaguntza behar bezala erabili dela justifikatu beharko da.

Laugarrena.- Diruz lagundutako jardueren finantzazioa.

Ordiziako Udalak hartuko du parte hitzartutako jardueren finantzaketan dirulaguntza baten bidez. 2026ko ekitaldian, aurrekontu-baliabide horiek 59.960 euro izango dira, ondorengo Udal Aurrekontuetako partiden kargura: 1 471.03.430.00.0261 2026, 1 471.04.430.00.0261 2026 eta 1 471.05.430.00.0261 2026; dena dela, diruz lagundutako elkarteak beste Erakunde batzuen dirulaguntzak ere jaso ditzake.

Horretaz gain, lokaleko gastuetarako 1 201.01.430.00.0261 2026 partida aurreikusten da Udal aurrekontuan, 7.000 zenbatekoarekin. Zenbateko hori 2026ko aurrekontuan kreditu egokia eta nahikoa egotearen eta dagokion gastua onartzearen baldintzapean egongo da.


Entitate onuradunak aurkeztu duen diruz lagundu beharreko jardueraren aurrekontua, edo hari aurkeztu ondoren egindako aldaketak, erreferentzia gisa erabiliko dira dirulaguntzaren zenbatekoaren azken zehaztapena egiteko, zenbateko hori proiektu edo jardueraren azken kostuaren portzentaje bat bezala kalkulatu da eta inoiz ezingo du emandako zenbatekoa gainditu. Kasu horretan, Ordiziako udalak egindako balizko finantzazioaren soberakina kalkulatu da ekarpen horrek kostu osoaren aldean duen portzentajea erreferentzia gisa harturik.

Dirulaguntza hau bateragarria izango da helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe honekin batera dauden diren beste dirulaguntzak erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakeena.

Gerta daitezkeen aldi bereko finantzaketa-kasuak honako baldintza hauek bete beharra daukate:

- a) Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu, beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua.

Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo dirulaguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta beren jatorria adierazita daudela.



Ordiziako Udala



ORDIZIAN
ELKARTEA · ASOCIACION

2026DIZU0004

b) Finantzazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko luke, berandutza-intereseekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie dirulaguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako dirulaguntzen proportzioan.

Hala ere, baldin eta Ordiziako udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, exijituko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako dirulaguntzaren mugaraino.

Dirulaguntzak elkarrekin bateraezinak izateak ez du galaraziko biak eskatzea, bai, ordea, biak batera jasotzea.

Bosgarrena.- Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.

Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira, indarrean dagoen legeriaren eta Ordiziako Udalaren Ordenantza Orokorren aurreikuspenen esparruaren barruan, baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea; deialdian, hitzarmenean edo emakida-ebazpenean ezarritako epearen barruan egitea; beren eskuraketa-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea; eta, deialdian, hitzarmenean edo ebazpenean espresuki kontrakoa xedatu ezean, justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.


Kanpoan geratzen dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagozkion gastuak, non eta ez den enpresa edo elkartearentzat gastu bat. Hori egiaztatzeko, Foru Ogasunak emandako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Bakar-bakarrik onartuko dira dirulaguntza eman edo hitzarmena onartutako urtearen barruan sortzen diren gastuak.

Dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada kontratu publikoen gaineko legerian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak baino, pertsona onuradunak gutxienez hiru hornitzaileen eskaintzak eskatu beharko ditu. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun edo zerbitzuok egin, eman edo hornitzen dituen hainbeste entitatetik ez badago, edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi horiek ziurtasun osoz justifikatu beharko dira.

Aurkeztutako eskaintzak aurkeztu behar dira edo justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntzarako eskabidean. Proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean, espresuki justifikatu beharko dira, memoria baten bidez, erabili diren irizpideak.

Gutxienez hiru hornitzaileen eskaintzak aurkeztu ez badira edo aukeratu bada, behar bezala arrazoitu gabe, proposamen ekonomikorik onena ez baizik besteren bat, organo emaileak eskatu ahal izango du ondasun edo zerbitzuaren peritu-tasazio bat egin dadila, eta sortzen diren gastuak pertsona onuradunaren kontura izango dira. Kasu horretan, diru-



Ordiziako Udala



ORDIZIAN
ELKARTEA - ASOCIACION

2026DIZU0004

laguntza kalkulatu da erreferentziatzen harturik bi balioetan txikiena dena: pertsona onuradunarena edo tasazioaren ondorioz ateratakoa.

Seigarrena.- Dirulaguntzaren justifikazioa

Dirulaguntza emateko egintzan aurreikusitako baldintza eta helburuak betetzearen eta lortzearen justifikazioa egingo da DLOaren 30. artikuluan, DLOaren Araudian eta Ordiziako Udalaren Dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokorren IV Tituluan aurreikusita dagoenaren arabera.

Dirulaguntza justifikatu da «justifikatzeko kontu erraztua» izeneko modalitateaz, oro har, honako dokumentazio hau duela (Ordiziako Udalaren Dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokorren 44. Art.):

- a) Jarduera-memoria bat, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko. Memoria horretan adieraziko da zein jarduera egin diren eta zein emaitza lortu diren. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean jasotzen den moduan, memorian sexuaren arabera banakatuta aurkeztuko da honako hauei buruzko informazioa: emandako zerbitzuaren azken onuradunak edo erabiltzaileak, pertsona titularrak eta langileak, eta dirulaguntza eragin duen zerbitzua emateko entitateak kontratatatu dituen langileak..
- b) Egindako jardueren kostua zein jasotako gainontzeko sarrerak justifikatzeko 1. Eranskina behar den bezala bete.


Zazpigarrena.- Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea.

Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea izango da hilabete bat, jarduera gauatzeko epea bukatzen denetik kontatuta. Kitapena, 2027ko urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da.

Zortzigarrena.- Ordaintzeko prozedura.

Dirulaguntzaren ordainketa egingo da, oro har, dirulaguntzaren onuradunak justifikazioa aurkeztu eta organo eskudunak onartu ondoren, beti ere jarduerarengatik eskumenak dituen departamentuak aldeko txostena egin ondoren.

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da: lehena organo eskudunaren erabakiaren jakinarazpenarekin batera eta Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duten agiriak aurkeztutakoan, honen zenbatekoa dirulaguntzaren %80a izango da, eta gainontzeko %20a, egindako gastua justifikatzen duen kontua onartutakoan.



Ordiziako Udala



ORDIZIAN
ELKARTEA - ASOCIACION

2026DIZU0004

Betebeharreko baldintza izango da Ordiziako Udalak aurretik emandako dirulaguntzen justifikazio dokumentazio osoa aurkeztu izana, beste dirulaguntza berri batean parte hartu ahal izateko.

Ordainketak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari jakinaraziko zaizkio ordaindu eta hurrengo hilabetea bukatu aurretik.

Bederatzigarrena.- Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.

Entitate onuradunak diruz lagundutako jardueren publikotasuna zabaltzeko neurriak, diruz lagundutako objektuarentzat egoki direnak, dela beren forman, dela beren iraupenean, nola baitira, esaterako, karteletan, plaka oroigarrietan, inprimatutako materialetan, baliabide elektroniko edo ikus-entzunezkoetan Ordiziako udalaren irudi instituzionala edo beraren finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea, edo hedabideetan aipamenak egitea, eta hori dena beste finantzaketa-iturri batzuei emandako garrantzia berdinarekin.

Hamargarrena.- Kontrol eta jarraipena.

Hitzarmen honen finantza kontrola pertsona edo entitate onuradunei egingo zaie, edo hala badagokio, erakunde kolaboratzaileei. Finantza kontrola Ordiziako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren xedatutakoari jarraiki egingo da.

Hitzarmen honen onuradunak behartuta daude kontrol finantzarioa egiten duten funtzionarioei lankidetzara eskaintzera eta horretarako eskatzen zaizkien agiriak eta beharrezko informazioa eskuratuko diete.


Jarraipen eta kontrol prozesu horretan hitzarmen honetako baldintzak ez direla betetzen ikusten bada, beharrezko neurriak hartuko dira diru itzulketa egin dadin, eta kasua bada, emandako diru-laguntza kobratzeko eskubidea galduko da.

Hamaikagarrena.- Erantzukizunpeko adierazpena.

Ordiziako Udalaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 30.2 f) artikuluan xedatutakoaren arabera, DLOren 13.2 artikuluan ezarritako onuradun izateko debekurik ez dutela dioen adierazpena egingo da.

Hamabigarrena.- Euskararen erabilpena.

2000ko urriaren 26an onartu zen Ordiziako Udalaren Euskararen erabilera sustatu eta normalizatzeko Udal Ordenantza eta 20.1 artikuluan honako hau jaso zen: *“Kultur, kirol eta aisi elkarteei dirulaguntzak ematerakoan hizkuntzaren irizpidea ere kontuan hartuko da. Ondorioz, Ordiziako Udalarengandik dirulaguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta entitateek, pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek, beren jardun subentzionatuetan zabaltzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta gainerakoak, ahozkoak, zein idatzizkoak, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzi eta ezagutzea eman beharko dituzte,*



Ordiziako Udala



ORDIZIAN
ELKARTEA · ASOCIACION

2026DIZU0004

elebietan egiten duten kasuetan lehentasuna euskarari eman beharko diotelarik, bai kokaeran, luzeran, nola tamainan.”.

Hori horrela, ahozko informazioa (megafonia...) eta idatzizkoa (kartelak, oharrak...) euskaraz edo ele bitan egingo dira, eta azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda, Ordiziako Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko Udal Ordenantzak xedatzen duen bezala. Euskaraz egingo dira ekintzaren izaerak edo hartzaileen berezitasunek hala eskatzen badute.

Hamahirugarrena.- Genero berdintasuna.

Dirulaguntzen onuradunek ondorengo printzipioak errespetatuz jardun beharko dute: tratu berdina; aukera-berdintasuna; dibertsitatea eta ezberdintasuna errespetatzea; genero-ikuspegiaren integrazioa; ekintza positiboa; sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea, eta koordinazioa eta lankidetzak.

Dirulaguntzaren onuradunak ezingo dute inolako laguntzarik jaso honako kasuetan:

- Pertsona fisiko edo juridikoak baldin eta beren xede edo helburuak, aukeratzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolamendua edo estatutuak emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak badira.
- Irudi edota hizkuntza sexista erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.
- Sexuagatik edo Berdintasunerako Legean aurreikusitako askotariko bereizkeria-egoerengatik diskriminatzen duten jarduerak.
- Sexuan oinarrituta diskriminazioa egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen jaso duten bat pertsona fisiko edo juridikoak, ezta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea dela-eta hala zigortuta daudenak ere.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Berdintasun Legean xedatutako obligazioak betetzen ez dituzten entitate edo enpresak.
- Aukeratzeko prozeduran edo funtzionamenduan sexuaren ziozko bereizketaren bat egiten duten elkarteak.

Hamalagarrena.- Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen duen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromisoa hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa, aplikatu daitekeen guztian, beteko dutela.

Hamabosgarrena.- Lan eta zerga legeria.

2026DIZU0004

Diruz lagundutako elkarteak bete beharko du, bere jarduera gauzatzean, indarrean dagoen legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik eratortzen den guztiari dagokienean.

Hamaseigarrena.- Izaera administratiboa eta Gainerako legeria.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta legedia administratiboak arautzen dute.

Hitzarmen honetan araututa ez dagoenean, honako lege-arau hauetan xedatutakoa bete beharko da: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa eta berau garatzeko Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; eta Ordiziako Udalaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.

Hamazazpigarrena.- Gardentasun Ataria.

Hitzarmenaren testua gardentasun-atarian, Udalaren iragarki-taulan eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko da.

Hemezortzigarrena.- Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungiko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Sinatzaileak	ALKATEA Adur Ezenarro Agirre ORDIZIAN MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA ZERBITZU ELKARTEA Mari Jose Rosco Prado
	Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAAS8SC3.TUK2